

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERAGOITIKO UDALA

#### Lanaldi partzialeko dedikazioa eta alkatearen ordainsariak

Erriberagoitiko Udalak, 2019ko ekainaren 21eko bilkura berezian, erabaki hau hartu zuen legezko gehiengoz:

1. Alkate kargua lanaldi partzialeko izendatzea ehuneko 50eko dedikazio portzentajea emanez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Udalhitzeko 25. mailari aplikatzea hautatutako ehuneko hori.

3. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta ematea. Udalak bere gain hartuko du alkate zereginetan jardungo duen pertsonari dagozkion enpresaren parteko kuotak ordaintzea.

4. Bai Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko altak –3. puntuan aipatua– bai aipatutako ordainsariak –2. puntuan aipatua– 2019ko ekainaren 15etik aurrera izango dute indarra.

Ordainsari horren zenbatekoa udalak langileekin duen hitzarmenean jasotako baldintzen arabera eguneratuko da.

Era berean, ordainsari horiek ez dira bateragarri administrazio publikoetako edo horien mendeko erakunde, organo edo enpresetako aurrekontuen kontura ordaindutako beste batzuekin, ez eta beste zenbait jardunekin ere, halaxe xedatzen baitu Herri Administrazioen Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak.

5. Urteko aurrekontua gauzatzeko udal arauak xedatuko ditu ordainsariak, dedikazioa eta urteko aldaketei buruzko gaiak.

6. Erabaki hau ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta web orrialdean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5. artikuluan xedatutakoa betez.

7. Korporazioko zinegotziek kide anitzeko organoen bilkuretara, batzarretara, udal bileretara, Arabako Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzara... egindako joan-etorri bakoitzarengatik 40,00 euro kobratuko dituzte.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Pobes, 2019ko ekainaren 24a

*Alkate-lehendakaria*

**JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ**